

Martin Ugalde: "Euskaraz bateginik mundu guztia jarri behar dugu"

[Egile ezezaguna]

Argia, 1.193. zk., 1988-04-03: 61.

ARGIA.- "Bateginik"eko ahoku batzordeko partaide zara. Nola egin zitzaizun horretarako proposamena eta zein da batzordearen zeregiria?

MARTIN UGALDE.- Joxemi Zumalabe etorri zitzaidan arratsalde batean, eta esan zidan nola ari ziren kanpaina hori prestatzen. Nik ez nuen ezer entzun horri buruz ordurarte, baina berehala iruditu zitzaidan ondo. Batetik euskara delako gure partidurik handiena eta beharrezko partiduren batean egon behar badugu, momentu honetan batez ere, euskararen partiduan egon behar dugu. Euskararen egoera oso gorria bait da, oso zail dago behar bezala aurrera ateratzea euskara. Egiten dira beste zenbait kanpaina, baina "Bateginik" oso zabala da, bi puntu garrantzitsu jarri ditu aurretik eta gainera sinaduren bilketak garrantzia haundia daukala uste dut.

Aholkulari bezala bilera batean parte hartu nuen eta prest geratu nintzen bai artikuluak idazteko, bai aholkuetarako inora azaldu behar bada azaltzeko eta pertsonalki jestioren bat egin behar badut egiteko ere.

A.- Zein neurritan uste duzu izango dela eragingarri "Bateginik" kanpaina euskararen kontzientziatzearen bultzagile bezala?

M.U.- Nik uste dut kontzientzia landu egin behar dela, kontzientzia berez izaten da, abertzaleak izaten du berezko kontzientzia bat, baina hori landu egin behar da. Egunero landu ez ezik, noizean behin argigarri gerta daitekeen zerbait erakusteko ahaleginak egin behar dira. Eta horretan kanpaina honen helburuak oso argiak dira. Uste dut behar beharrezkoa dela noizean behin kontzientzi garbitze hori. Eragin hori nolabait sortu behar da, bakoitzaren gain dago, uste dut behar handiagoetan gaudela eta hori nahi eta nahiez egin behar dugula. Nik uste dut eragingarria izango dela, adibidez, "Bateginik Zirkoa"rekin haurrak mugierazteko asmoa badagoela.

A.- Ikastolak, Komunitate Autonomoan, Iparralde eta Nafarroan egoera oso desberdinean dira. Zer premia ikusten duzu, zer balorazio egingo zenuke horretaz?

M.U.- Horiek dira gure "tierras y reventas", alegia, euskaldunen izpiritua ailegatu ez den lurra, hau da, Nafarraldeko hegoaldea eta Iparraldeko zati bat. Guk, nahita nahiez hor behar den tokian behar dugu euskara jarri, ez euskara beraiei emateko bakarrik, baizik eta haien izateak egingo bait gaitu euskaldunago gu. Euskal Herria euskaraz martxan jarri nahi badugu -gure groputzeko buru; zango eta besoak odol beraz guztiak behar baditugu bizitzeko-, euskarak ere Euskal Herri osoan behar du bizi. Haien ardura behar

dugu izan guk, ez alderantziz, ez bait dakite haiek gure beharraz. Guk beraiena bai ordea.

A.- Kanpainaren barnean zein ekintza aipatuko zenituzke interesgarri gisa, zein duzu gustokoen, agian zirkoa? Izan ere euskal zirko baten lehen promotorea zeu izan zinen...

M.U.- Bai gizona! Gobernutik 100 miloi eskatu nituen duela urte batzu, txostena ere egin nuen eta ez zuten begiratu ere, kitto! Catalunyan ere bazuten. Ekilibrista eta zirkoaren beste partaideek ez daukate hitzegin beharrik, hitzegiten dutenak behar dute euskaldunak izan, mundu guztia jarri behar dugu euskaraz bateginik. Haurrak eramaten diren tokira joaten dira gurasoak, haurren ingurua euskaldundu behar da, gurasoak ikastoletan sarturik daude, aspaldidanitik izan dute "entrenamendua" kontzientzia izateko. Euskarari laguntzeko pausu berri bat da. Bestalde, ikastolik ez duten herri horientzat bono bidezko laguntza lortu behar dela iruditzen zait.